## egitaraua


TRAPU ZAHARRA

**Trapu Zaharra konpainiaren 'Paquetito' kale ikuskizuna**

Antzerkiak ere bere lekua izango du madalenetan. Hala, Trapu Zaharra antzerki konpainiak *Paquetito* kale ikuskizuna eskainiko du etzi, arratsaldeko 20:00etan, Biteri kalean. Francisco Jose Bulto toreatzailearen eta *Lucero* zezenaren arteko istorioa da ikuskizunaren ardatza. Umorea eta atsekabea ederki uztartzen dira obra guztian.

### UZTAILAK 21 • IGANDEA

**Madalena bezpera**

**09:00** Galeperrari tiro saioa *kaiola erara* Orereta Ikastolako zelaietan, San Huberto Ehiza eta Arrantzua Elkarteak antolatua.
**19:30** Aitzbitarte haitzuloetan (Landarbasoko zelaietan) Europako XII. Historiaurreko Jaurtigailu eta Arku-tiro Txapelketaren jarraipena, eta jaurtigailuarekin tiro-txapelketa. Aitzbitarteko Lagunak Elkarteak antolatua.
**16:00** Galeperrari tiro saioa. *kaiola eraren* jarraipena.
**19:00** Aurtengo jaietan omenduko dituztenek (Jesus Hospitaler, Rafa Bandres eta Amulleta, Txepetxa eta Alkartasuna Elkarteek) jaiak iragartzeko suziria jaurtiko dute. Andre Mari Elizako ezkil hots alaiarekin batera, Errenteriako Musika Kultur Elkarteak ohiko *El Centenario* pasodoblea joko du, eta modu horretara herriko jaiak hasiko dira. Ondoren, aipatutako elkartea eta udal txistulari banda herriko kaleetan zehar ibiliko dira buruhandi eta erraldoiekin batera.
**19:30** Txalaparta fanfarrea herriko kaleetan zehar.
**20:00** Madalena Donearen Basilikan salbea, herriko agintariak bertan daudela.
**20:00** Enkartelada herriko kaleetan, Errenteria-Oreretako AABek antolatuta.
**20:00** Zumardian areto eta latino dantzen erakustaldia, Escuela de Baile Swingek antolatua.
**23:15** Alaberga auzotik, gaueko danborrada handia irtengo da Pasai fanfarrea lagun duela; gauerdiko 12:00etan udaletxe aurrean, *El Centenario* ohiko pasodoblea joko dute, Alabergako Arditurri auzo elkarteak antolatua.
**23:30-03:30** Koldo Mitxelena Plazan (Esmalterian) camp dantzaldia: Monpas.
**00:30** Gamon Zumardian zezensuzkoa irtengo da, danborrada lagun duela.
**01:00-04:30** Gamon Zumardian diskoteka mugigarria Faktoryrekin.
**01:00-05:30** Txalaparta fanfarrea herriko kaleetan zehar.

### UZTAILAK 22 • ASTELEHENA

**Madalena eguna**

**06:00** Sastakai txarangarekin diana.
**07:00** Entzierroa ondoko kaleetan: Alondegia, Madalena, Maria de Lezo , Xenpelar, Biteri, Kapitain-Enea, Erdiko, Beheko , Herriko Plaza eta Alondegi zaharrean amaituz. Jarraian, ibilbide berean sokamuturra.
**08:00** Sastakai txarangak girotuta, Fanderia auzoan ipiniko den zezen plazan zezen bolaztatuak.
**10:45** Udalbatza eta Parrokiako Batzarra Madalena Deunaren Basilikara joango dira, Udal Txistulari Banda, Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Musika Banda eta Ereintza Dantza Taldea lagun dituztela. Handik, ohiko prozesioan, santuaren irudia elizaraino eramango dute, eta ondoren meza nagusia.
**11:30-13:00** Gernika Plazan haur guztientzat haur jolas parkea.
**12:00-14:00** Gamon Zumardian herri kirolak eta txingen eskualdeko txapelketa, Bi-Errota Gastronomi Kultur Elkarteak antolatua.
**12:00** Udaletxeko areto nagusian, ondoren jakinarazten diren sariak banatuko dira: XV. Maddalen sariak, Jautarkol sariak, Madalenetako XVIII. Kartel lehiaketa eta Gaspar Galeriek emandako saria eta kartelen I. Haur lehiaketa. Ondoren, Jesus Hospitaler, Rafa Bandres, Amulleta Elkartea eta Alkartasuna Elkarteari omenaldia, azken bi hauei, aurten 50. urteurrena dutelako.
**12:30** Foru Plazan musika-emanaldia, Errenteriako Musika Kultur Elkartearen eskutik.
**16:00-20:00** Gernika Plazan haurrentzako haur jolas parkea.
**17:30** Udal pilotalekuan Jose Antonio Zuloagaren Omenezko VII. Jaialdia binakako esku pilotako finalak, Alkartasuna-Ondarra elkarteak antolatua.
**18:00** Asto-tokian probintzia eta herri mailako Maria Madalen XXIV. Toka Sari Handia egingo da, Alkartasuna-Ondarra elkarteak antolatua.
**18:00** Grafiti lehiaketa Lehendakari Agirre Plazan, Txosnen batzordeak antolatua.
**19:00** Zezen plazan, zezen bolaztatuak.
**19:00** Alaberga Plazatik irtengo dira Alaberga, Beraun eta Telleri Aldeko haur danborradak.
**19:00** Iztietako Diputazio Plazan Flamenkoa: sevillanak, rumbak... Concha Rociera kultur elkarteak antolatua.
**23:00** Astondoa pirokteniak lehenengo su artifizial sorta erreko du. Aurreko urteetan bezalaxe. Agustinetatik jaurtiko ditu.
**23:00** EMTEk eta Txosnen batzordeak antolatuta, kontzertua Lehendakari Agirre plazan: Koma, Por la sombra, Kematzen eta Alter Ego taldeekin,
**23:00-03:00** Koldo Mitxelena plazan (Esmalterian), dantzaldia Alboka taldearekin.
**00:30-04:30** Gamon Zumardian dantzaldia, Ostadar taldearekin.
**01:00-05:30** Incansables txaranga, herriko kaleetan zehar.

### UZTAILAK 23 • ASTEARTEA

**Adinekoen eta emakumeen eguna**

**06:00** Sastakai txarangarekin diana.
**07:00** Entzierroa, lehen adierazitako ibilbidean barrena. Jarraian, ibilbide berean sokamuturra.
**08:00** Zezen plazan, zezen bolaztatuak, Sastakai txarangak girotuta.
**11:00** Meza nagusia adineko jendearentzat, Andre Mari parrokian.
**11:00-13:00** Haur guztientzat haur jolas parkea Gernika Plazan.
**11:00** Asto tokian idi demak, XXIV. Madalena Saria, Alkartasuna-Ondarra elkarteak antolatua.
**13:00** Udaletxeko areto nagusian, urrezko ezteiak ospatzen dituzten Errenteriako senar-emazteei omenaldia.
**14:00** Koadrilen eguneko ekintzekin hasiz, Lehendakari Agirre plazan bazkaria, Ostiko Kultur Taldeak antolatua.
**14:30** Erretiratuen anaiarteko bazkaria eta dantza, Lintzirin eta Versalles jatetxeetan eta Olibet erretiratuen elkartean. Amaieran garaikurrak banatuko dira.
**16:00-19:00** Gernika Plazan haur jokoak, Monfragüe Errenteriako Extremadurako Kultur Zentroak antolatua.
**16:30** Koadrilen arteko jokoak eta malabareen ikuskizuna, Ostiko Kultur Taldeak antolatua.
**18:00** Asto tokian idi demen jarraipena.
**18:00** Buruhandi eta erraldoiak ibiliko dira herriko kaleetan barrena.
**18:15** Uda Pilotalekuan Joakin Etxeberriaren omenezko XXI. Jaialdia pala partidekin, Landare Elkarteak eta Errenteriako Pilota Eskolak antolatua.
**18:30** Incansables txaranga herriko kaleetan barrean ibiliko da.
**18:30** Poteo herrikoia kale animazioarekin, Ostiko Kultur Taldeak antolatua.
**18:30** Udal kiroldegian ikuskizuna ekintzekin, Errenteriako hainbat emakume taldek antolatua.
**19:00** Zezen plazan, zezen bolaztatuak.
**20:00** Errenteriako Hiria Kulturgunean, antzerki emanaldia euskaraz, Ereintza Elkarteak antolatua.
**20:00-21:15** Madalena ermitan Beti Bizkor Elkartearen Maialen abesbatza eta Donostiarra Gitarra Elkartea.
**20:00** Biteri kalean, *Paquetito* antzerkiemanaldia, Trapu Zaharra taldearen eskutik.
**21:00** Alkartasuna elkartean, elkarteen arteko XXIII. Gastronomia lehiaketa egingo da eta ondoren sariak emango dira, Alkartasuna-Ondarra elkarteek antolatua.
**23:30-01:30** Koldo Mitxelena plazan (Esmalterian), Kubako musikarekin dantzaldia, Chicas del Sol taldearekin.
**00:30-04:00** Gamon Zumardian dantzaldia, Triki ta Ke taldearekin.
**01:00-05:00** Incansables txaranga, herriko kaleetan zehar.
**01:00-05:00** Lehendakari Agirre Plazan, euskal karaokea, EHEk antolatuta.

### UZTAILAK 24 • ASTEAZKENA

**Santiago bezpera**

**06:00** Sastakai txarangarekin diana izango da.
**07:00** Entzierroa, lehen adierazitako ibilbidean barrena. Jarraian, ibilbide berean sokamuturra.
**08:00** Zezen plazan, zezen bolaztatuak, Sastakai txarangak girotuta.
**11:00-15:00** Hiltegian jarritako barraketan haurraren eguna ospatuko da; nahi duen orok diru gutxirekin ondo pasatzeko aukera izango du.
**11:00-13:00** Haur guztientzat haur jolas parkearen jarraipena Gernika Plazan.
**11:00** Buruhandi eta erraldoiak.
**14:30** Bazkaria Senideek antolatuta.
**16:00-20:00** Haur ororentzat haurrentzako jolas parkearen jarraipena, Gernika Plazan.
**16:00-20:00** Reina zinema aretoan haur filmen emanaldiaa, T.L. Atlasek antolatua.

FEDEROPTICOS OARSO
BISTAREN GRADUAZIOAK
AZTERKETA OPTOMETRIKOAK
IKUS-ENTRENAMENDUAK
UKIPEN-LENTEAK
AUDIOMETRIAK
GORRENTZAKO APARAILUAK
Bizente Elizegi, 9 Tel.: 943 51 67 99
Galtzaraborda etorbidea, 49 Tel.: 943 52 08 15
20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Madalena hauetan guk prestatuko dugu zure ordez.
ERAMATEKO:
Oilaskoak
Entsaladak
Bokatak
Sandwich-ak
Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak
Postreak eta Edariak
POLLO rico RING
OILASKO goxoa
Bar Piscinas - Tel.: 943 52 86 68
ERRENTERIA
Txingudi merkatal Zentroa - IRUN
Disfruta ezazu gure udarako terrazan

OIHARTZARRA TABERNA
Ondo pasa Madalenetan!!
Gamon zumardia, 14
20100 ERRENTERIA